

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### GIZA BALIABIDEAK

#### **Francisco Javier Galve Borja Luis Aranburu musika eskolaren zuzendari kargutik kentzea**

2016ko ekainaren 3an onetsi zuen Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarrak Luis Aranburu Musika Eskolan indarrean dagoen lanpostuen zerrenda/katalogoren aldaketa partziala, eta bertan jasotzen zen eskolako zuzendaritza kontseiluak adostutako proposamena, zein zuzendari lanpostuaren definizioa aldatu eta irakasleen lanaldia areagotzeko baita.

Zuzendari lanpostua zuzendaritzako kide gisa zehaztu zen, eta horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio izendatzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko urriaren 21ean, Francisco Javier Galve Borja Gasteizko Luis Aranburu Musika Eskolaren zuzendari izendatzea erabaki zuen, Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren araudi organikoak ezarritakoaren arabera, horrek arautzen dituelako, beste gai batzuen artean, izendapen erregimena, sailak eta funtzioak eta zuzendaritza organoen kargu-uztea. Horri dagokionez, haren 44. artikulua haxe ezartzen du:

“1. Tokiko Gobernu Batzarrak izendatu nahiz kargutik kenduko ditu koordinatzaile nagusiak eta zuzendari nagusiak nahiz antzeko organoak”

Eta 2. paragrafoan honela jarraitzen du:

“Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.3. artikuluan xedatutakoaren arabera izendatu beharko dira”

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 5ean egindako bilkuran Hezkuntza eta Kultura Saileko zuzendari nagusi izendatu zuen Francisco Javier Galve Borja jauna eta, horrenbestez, beharrezkoa da ordura arte betetzen zuen zuzendaritza kargutik kentzea.

Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 44. artikulua Tokiko Gobernu Batzarrari aitortzen dio zuzendari nagusiak izendatu eta lanpostutik kentzeko eskumena. Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.b) artikulua —Tokiko Gobernu Eraberritzeko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— xedatutakoarekin bat etorriz, alkateari dagokio udal administrazioaren zuzendaritza, eta ondorioz, Gasteizko Udalaren alkateak honakoa proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabaki proposamena

1. Francisco Javier Galve Borja jauna –NANA: 22.576.158– Gasteizko Luis Aranburu Musika Eskolaren zuzendari kargutik kentzea, 2019ko uztailaren 4ko ondorioekin, egun hori izango delarik zeregin horietako azken eguna. Eskertu egiten zaizkio egindako zerbitzuak.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 19an

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**